

DIRU ITURRIAK

Gure proiektua haurretatik eta haurrentzat eginda pentsatuta dago, beraz, gure ardatza beti haurren eta beraien familien beharrak izango dira.

Udaletxe desberdinetara jotzea dugu helburu, gure proiektua aurkeztu eta saltzeko asmoz. Hortaz, guri ordainduko ligukeena udala izango zen, guztion diruarekin finantzatuko litzateke beraz gure proiektua. Gizartearen ongizatea bilatzen ari garelarik, udalak urtero familiarentzat bideratzen duen aurrekontutik portzentai bat gure proiektura bideratu ahalko zela uste dugu.

Diru iturrietan ere aldaketa ekarri nahi dugu. Gaur egun badirudi kalitatezko gauza guztiak ordaindu behar direla eta zentzu horretan maiz diru publikoaren erabilera egokiena ez dela uste dugu. Hori dela eta, gure zerbitzua azken bezeroarentzat doakoa izatea nahi dugu, zerbitzua ordaintzen duena udala izanik.

Herri gehienetan udalak urtean lauzpabost ekintza egiten dituelaren sentazioa dago eta hau ez da nahikoa. Beraz, herritik eta herriarentzat ekintza eta asialdiak eskaintzera gatoz. Udal bakoitzak gure proiektuarengan bideratzen duen diru laguntzen arabera, gure zerbitzua ere desberdina izango da. Gainera, eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak oso anitzak izango dira. Izan ere, talde desberdinak osatuko dira une oro, eta taldeak emango dio benetako izaera zerbitzuari.

Eskainiko genituzkeen ekintzen artean ondorengoak aipatu ditzakegu:

- Baso irteerak: naturarekin eta naturarentzat hezitu.
- Sormen tailerrak.
 - Paper luze batean etzun eta margoztu kanpotik gorputz osoa. Familia osotasunean irudikatuz.
 - Playmobilekin familia osatzea.
 - Zuhaitzak familiekin.
- Musika tresnak sortu eta txaranga batekin kalez kaleko kalejirak.
- Ipuin kontaketak
- Antzerkiak
- Tertuliak
- Tailer desberdinak; gastronomikoak, edoskitze tailerra, kalitatezko zaintzen inguruko tailerra, lehen sorospenak, haur eta familia heziketa; askatasuna eta mugak, autonomia landu....

Aipatu dugun bezala, udalak eskaini nahi duen aurrekontuaren arabera ekintzak ugarituko genituen. Eskaintza hasiera batean Durangaldera zabaltzea pentsatu dugu, beraz, Zornotza, Atxondo, Durango, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Iurreta, Garai, Izurtza, Mallabia eta Mañariko udalei gure zerbitzuak eskainiko genizkien.

Bestalde, bost kideek hasierako aportazio bezala, 1.500 euro jartzea pentsatu dugu eta beraz, guztira 7.500 euro ere izango genituzke hasierako gastuei aurre egin ahal izateko.

Amaitzeko, esan beharra dugu, irabazteko asmorik gabeko erakunde bat sortu nahi dugula, hau da, irabazirik izatekotan ez dugula akziodunen artean banatuko, baizik eta beti gure helburuetara bideratuko genituela irabazitako guztiak. Mota honetako erakundeentzako badakigu ere diru laguntza ugariak izaten direla, beraz ez dugu baztertzen horrelako diru sarrerarik jasotzea.